

**LARINGITISA
LARINGITIS**

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak direla-eta, hauxe da egin diagnostikoa: **LARINGITISA**.

ZER DA?

Laringitisa arnasbidearen sarreraren –laringearen– aldi-bateko inflamazioa da (2-3 egunetan desagertzen da), birus-infekzio batek sorrarazia.

NOLA IGARRI?

Laringitisa dagoenean, hauexek agertzen dira:

- Eztul gogor berezia (“txakur-etzula”).
- Arnasa hartzeko zailtasuna, handia edo txikiagoa (saihetsezurrak nabaritzen zaizkio, azkar hartzen du arnasa, bularra hondoratzen zaio) eta airea hartzean arnas-hotsa nabari dakioke.
- Batzuetan, sukarra.
- Txarrera egiten du gaez (umea itoko balitz bezala esnatzen da) eta giro bero eta lehorretan ere bai (berogailuak). Baina, egunean zehar eta giro hotzetan hobera egiten du (zentro medikora gaez etortzean, hobera egiten dute umeek).

ZER EGIN ETA ZERI JARRI ARRETA?

Oro har, 2-3 egunetan sendatzen da umea, tratamendurik gabe. Beharbada, tratamendua beharko du sukarrerako (38º-ko temperatura baino gehiago badauka). Gomendagarria da ahotik likido ugari hartzea. Gutxitan gertatzen da bestelako medikamentuen bidezko tratamendua behar izatea.

Zer egin berriro esnatzen bada arnasa hartzeko zailtasunarekin:

- Arnas dezala bainugelako ur beroaren lurruna, ea hobera egiten duen.
- Hala ez bada, arnas dezala aire hotza leiho edo balkoitik (lehenago, arropa jantzi).
- Hala eta guztiz ere, hobera egiten ez badu eta zail bazaio arnasa hartzea, komenigarria litzateke beste azterketa bat egitea hurbilen dagoen osasun-zentroan.

Umearen pediatriak kontrolatzea gomendatzen dugu. Laringitisa behin baino gehiagotan ager daiteke.

Su hijo, por los síntomas que presenta en este momento, ha sido diagnosticado de **LARINGITIS**.

¿QUE ES?

La laringitis es una inflamación transitoria (2-3 días), de la entrada de la vía respiratoria (laringe) causada por una infección viral.

¿COMO RECONOCERLA?

La laringitis presenta:

- Tos ruda característica (“tos de perro”).
- Dificultad para respirar variable (se le notan las costillas, respira rápido, hunde el pecho) y puede tener ruido respiratorio al coger aire.
- En algunas ocasiones fiebre.
- Suele empeorar por la noche (despertándose el niño como si se ahogara) y también empeora en los ambientes cálidos y secos (calefacciones). Por el contrario, mejora durante el día y en ambientes fríos (al venir al centro médico por la noche suelen mejorar).

¿QUE HACER Y QUE VIGILAR?

Generalmente se cura en 2 – 3 días sin tratamiento. Puede precisar tratamiento para la fiebre (si tiene temperatura mayor de 38º). Es recomendable que tome abundantes líquidos por boca. Pocas veces necesitará tratamiento con otros medicamentos.

Qué hacer si se vuelve a despertar con dificultad para respirar:

- Probar haciéndole respirar el vapor del agua caliente del baño.
- Si no mejora, probar haciéndole respirar aire frío de la ventana o balcón (abrigarlo antes).
- Si a pesar de haber hecho lo anterior no mejora y persiste la dificultad para respirar, sería conveniente una nueva valoración en el centro de salud más cercano.

Recomendamos el control por su pediatra.

La laringitis puede repetirse en otras ocasiones.